

# **GRADUA: EKONOMIA**

2015/2016 ikasturtea

## **MIKROFINANTZAK: GARAPENERAKO GILTZA HERRIALDE POBREETAN**

Egilea: Xabier Andrés Cambroner

Zuzendaria: Eduardo Bidaurratzaga Aurre

Bilbon, 2016ko Urriarren 7an

# Aurkibidea

---

Sarrera	2-4
1. Pobrezia eta horren aurkako tresnak garapen bideko herrialdeetan	5
1.1. Pobreziaren aurkako estrategia eta neurriak	6-8
1.2. Pobreziaren tranpan harrapatuta?	8-10
1.3. Beste ikuspegi bat	10-11
2. Mikrokredituetatik mikrofinantzeta: mikrofinantzak eskusio sozialaren aurrean	
2.1. Aurrekariak	11-14
2.2. Mikrokredituen oinarriak, eztanda eta mugak	14-18
2.3. Mikrofinantzen ekarpena	18-21
2.4. Mikrofinantzak gaur egun	21-22
2.5. Sostengarritasun finantzarioa eta estatuaren rola	23-25
3. Ikerketa kasua: Bolivia	
3.1. Boliviari mirariaren eragileak	25-27
3.2. Mikrofinantzen egoera Bolivian gaur egun	27-28
3.3. Boliviaren mikrofinantza sektorea eta pobreziaren aurkako borroka etorkizunari begira	28-31
4. Ondorioak eta ekarpena	32-35
5. Bibliografia	36-38

# SARRERA

---

Finantza eta pobreziari buruzko loturari buruz galdetuta, duela hiru edo lau hamarkada edozein adituk zoro moduan hartuko ginduke. Gauzak aldatu egin dira zeharo, gaur egun, finantzek hartu duten dimentsioa hain handia da non pobrezia eta garapen bideko herrialdeak finantzen parte diren. Pobrezia finantzen mapan, Muhammad Yunus irakasleak jarri zuen duela 40 urte. Jatorriz Bangladesheko aditu honek, finantzak eskubide baten moduan ulertzen zituen ezerren aurretik eta askorentzat kontzeptu berria zen ideia hartatik abiatuz mikrokredituen hedaldia hasi zen.

Batzuek izendatutako mikrokredituen miraria eboluzionatuz eta garatuz joan da urteak pasa ahala. Geroz eta erakunde gehiagok, geroz eta zerbitzu gehiago pertsona gehiagori eskaintzen dioten heinean, sektorea handituz doa azken hamarkadetan. Hala ere, badago prozesu guzti hau “miraritik” urrun ikusten duten korronteak. Lizunkeria, pobrezia gehiago, ezkutuko interesak, frogakortasun eza... salatzen dituzte mikrofinantzen aurka dauden adituek.

Testuinguru interesgarri honetan kokatzen da nire lana. Pobreziaren aurkako borrokan, mikrofinantzak tresna eraginkorrak diren ala ez, hain zuzen. Hasierako galdera honen erantzunaren bila ostera, garrantzia handiko beste batzuk agertuko zaizkigu. Lor dezakete mikrofinantzek inklusio finantzarioa? Eta, nola sor dezake garapen bideko herrialde batek eskusio finantzarioari aurre egiteko finantza sistema bat? Bateragarria al da mikrofinantzen garapena sustatzea erakunde edo bankuen errentagarritasuna maximotuz?

Galdera guzti hauei erantzuteko erronka onartu egiten dut lan honetan, eztabaida eta pentsatzeko era ezberdinen ekaitzaren erdian eta finantzek pobreziaren aurka azken hitza esan ez dutenaren itxaropenarekin.

## LANAREN EGITURA

Lana hiru atal nagusitan banatzen da. Lehenengo atala pobreei dago zuzenduta. Pobreak izango ditugu beti oinarri lan honetan eta ezinbestekoa izango da haien egoera ulertzea eta beraien oinarritzko behar ekonomikoak ezagutzea gero benetan behar dituzten zerbitzu finantziarioak eskaini ahal izateko. Gainera, finantziazioa eta kreditu bat eskuratzeko aukera muturreko pobrezari agur esateko tresna bat izateaz gain, eskubide unibertsal moduan ulertuko dugu.

Inklusio sozialaren ildotik, gure bigarren atala mamitsua izango da oso. Mikrokredituen hastapenei begirada bat eman eta gero, mikrokredituetatik mikrofinantzetara azken berrogehi urteetan jazo den prozesua izango dugu aztergai. Mikrokredituen eztanda eta urte loriatsuak, kritikekin batera etorri zen geldiuena, zerbitzu eta produktu berrien beharra eta mikrofinantzen ekarpena ikasiko ditugu. Gainera, prozesu guzti honetan estatuaren papera zein den ikusiko dugu eta pobreei finantzazioa utopia bat edo benetan finantzarioki jasagarria eta bideragarria den ikusiko dugu.

Hirugarren atalean, ikasitako teoria errealitatera ekartzen saiatuko gara. Bolivia izango da aztergai izango dugun herrialdea. Boliviari mirari finantzarioan eragin izan zuten faktoreetan jarriko dugu arreta eta aipatutako arrakastaren oinarriak aztertuko ditugu. Gainera, lanari amaierako puntua jarri eta ondorio orokorrak garatu baino lehen, gure ikerketa kasua erreferentziatzat hartuko dugu, zer eta hasieran planteatzen genituen zenbait galdera teorikoen erantzuna aurkitzeko.

## HELBURUAK

Helburu nagusia hurrengoa da:

- Mikrofinantzek pobrezia ezabaketa bidean izan dezaketen eragina teoriarik zehaztea, ondoren praktikan eragin honen indarra neurtuz.

Helburu honi heltzeko bidean hurrengoko azpihelburuak definitu ditugu:

- Pobrezia aurre egiteko bide ezberdinak aurkeztu eta alderatzea.
- Mikrofinantzen gaur eguneko egoerara heldu arteko eboluzioa aztertzea.

- Gaur eguneko mikrofinantzen gabezia nagusiak zehaztu eta testuinguru berri honetan estatuak duen rola definitzea.
- Garapen bideko herrialde baten, eta zehazki Boliviak, baztertze finantzarioari aurre egiteko eraikitako finantza sistemaren gakoak zehaztea.

## METODOLOGIA

Proposaturiko helburuak lortzeko ondorengo metodologia erabili dugu lanean:

Lehenik eta behin, esan beharra dago lan hau orokortasunetik zehaztasunera dagoela planteatuta. Prozesu honetan informazio iturri eta literatura akademiko ugari aurkitu dut gaiaren inguruan. Horregatik, lanaren zati handi bat ezagutza berrien bilaketa eta informazio iturrien konparaketan pasa dut.

Mikrofinantzen inguruko literatura akademiko teknikoaren bilaketan, Jorge Zubiri Goiria irakasleari eskerrak eman nahi nizkioke bere laguntza eskaintzeagatik, baita HEGOA eta nazioarteko lankidetzak eta garapenari buruzko ikasketa institutuari konkretuki, beraien lanen eskuragarritasuna laguntza handia izan baitira niretzat.

Datu enpirikoen bilaketan, sektore finantzarioan erreferentziazko erakundeen datu baseak erabili ditut, hala nola, CGAP (Consultative Group to Assist the Poor), Microcredit summit, World Bank, Mix Market eta abar luze bat. Bereziki kasu praktikoak eskatu egiten dituen froga enpirikoetan garrantzitsuak izan dira aipatutako datu baseak. Datu zein estatistiken interpretazio egokia burutzea erronka handia izan da niretzat, izan ere, askotan, zenbakiei esanahi egokia bilatzen ez da erreza izaten.

# 1. POBREZIA ETA HORREN AURKAKO TRESNAK GARAPENeko HERRIALDEETAN

---


Egun, munduan mila milioi pertsona baino gehiago eguneko dolar bat baino gutxiagorekin bizi da. Adin nagusiagoko 876 milioi gizabanako alfabetugabeak dira, horietatik  $\frac{2}{3}$  emakumeak izanik. Egunero, 5 urte baino gutxiagoko 30.000 ume saihes daitezkeen gaixotasunen ondorioz hil egiten dira. Garapeneko herrialdeetan, hamar umeetatik bat ez da hamar urteko adinera helduko. Badira berrogeita hamabost herrialde, horietatik gehienak Sahara azpiko Afrikakoak, 55 urte baino gutxiagoko bizi-itxaropena dutenak. Sahara azpiko herrialdeetan, populazioaren erdiak ez du edateko ura lortzeko modurik (Nazio Batuak, 2010).

Hamaika alditan irakurritako datu potolo hauek berridatzi eta gero, itxaropena galtzeko arrazoiak daudela pentsa lezake batek baino gehiagok. Zenbaki handiegia, arima eta nortasun propio gabeak, segundo batzuetan lur jota uzten zaituen horietakoak. Baina pobrezian eta garapen bideko herrialdeetan ez den beste zer edo zertan pentsatzen hasi baino lehen, beste batzuetan batek bere buruari noizbehin galdetu dion galdera horri erantzuna bilatzen saia gaitezke. Zeintzuk dira pobrezia sortzen dituzten faktoreak? Edo, haratago joz, zer egin dezakegu pobrezia desagertu arazteko edo behintzat murrizteko?

Ekonomian oinarritzen den ikuspuntu batean, neure burua behartuta ikusten dut guzti honen inguruko gogoeta bat egitera. Balentria ekimen batean beraz, galdera hauei erantzuna ematen saiatuko naiz atal honetan. Mundu mailako gure gizartearen arazo handi hau gainditzeko bide ezberdinak aztertuz eta batez ere, galdera pisutsu horien aurrean erantzun eta ekimen txikiak, irakurri ohi ditugun ekimen handiak baino eraginkorragoak direla ulertuz.

## 1.1.Pobreziaren aurkako estrategiak eta neurriak

### 1.Irudia: Pobreziaren jatorri eta konponbideak



Iturria: Norberak egin

Zergatik existitzen dira herrialde pobreak? Ezbairik gabe duela hamarkada asko mundu mailan eztabaida ugari sortu duen galdera da hau. Hamaika teoria, aditu eta liburuk erantzun borobila aurkitu nahian aritu diren arren egun ez dago batere garbi herrialde batzuk aberatsak diren eta beste batzuk pobreak. Beraz, burua hamar mila teoria ezberdinekin bete baino lehen saia gaitezen hurrengo galderari erantzun bat bilatzen: zer egin dezakegu pobrezia desagertarazteko eta ongizatea sartzeko? Galdera hau erantzuten zaila izaten jarraitzen duen arren, badugu elkarren aurrean talka egiten duten bi pentsatzeko era ezberdin.

Eztabaidaren alde batean, pobreziaren aurkako borroka helburu duten erakundeak ditugu, Nazio Batuen zenbait agentzia, hala nola Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD) buruan dagoelarik. Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) eta Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) aburuz, besteak beste, garapen bidean dauden herrialdeak, berez, hein handi batean egituraz pobreak dira. Ikuspegi honen atzean dauden argudioak edo gertaera hau ahalbidetzen duten ezaugarrien artean, herrialde beroa izatea, emankortasun eta oparotasun gutxikoa, gaixotasun ugari

infestatuta egotea eta geografikoki merkataritza eta nazioartean harremanak aurrera eramateko zailtasunak dituzten herrialdeak izatea dira. Herrialde hauek, inoren eskuetan dauden kanpo ezaugarri hauen ondorioz pobreak direnez, sistema politiko eraginkor batek ez du beraien egoera hobetuko baldin eta kanpotik beharrezkoa duten laguntza edo hauspoa jasotzen ez badute. Zorionez, pentsatzeko era hau dutenen aburuz, herrialde hauek pairatzen duten egoera ez da behin betikoa; eta herrialde bakoitzak duen gaitza identifikatuz eta kanpotik eremu kritiko hauetan irtenbide bat eskaintzen bazaie, produktiboagoak izaten hasiko dira. Lortutako produkzio soberakina eremu kritiko jakinean berrinbertituko da mozkin gurpila abian jarritz, eta herrialde pobre hauei garatzeko aukera emango zaie. Eredu honek beraz, behar beharrezkoa ikusten du garapen bidean dauden herrialdeei laguntza ematea. Ideia guzti honen ordezkari nagusienetako bat Jeffrey Sachs ekonomialari ospetsua dugu eta bere liburuan, “The end of poverty”, herrialde garatuek urtero 195.000 dolarreko ekarpena egingo balute, 20 urtetan munduan pobrezia bukatuko litzatekearen ideia azaltzen digu.

Badira ostera eragin handiko beste aditu asko ideia hauekin bat ez datozenak. Eztabaidaren beste aldean, izen handiko beste ekonomialari asko ditugu. Adibidez, Dambisa Moyo. Bere ustetan, bere *best seller* “Dead Aid”-en argi uzten duen moduan, herrialde pobreei kanpo laguntzak ez die batere onik egiten. Historikoki finantziazio handia jaso izan duten herrialde afrikarrak, laguntza jaso aurretik baino egoera larriagoan daudela azaltzen digu Moyok zehaztasunez eta froga enpirikoekin. Izan ere, laguntzak egiten duen gauza bakarra, eredu liberal honen ustetan, pobreziatik ateratzeko balio handiko irtenbide propioak zapaldu (laguntza kanpotik etorriko bada, zertarako egingo ditut ahaleginak nire egoera hobetzeko?), barne instituzioak usteldu eta hondatu eta oso arriskutsuak diren gobernu kanpoko erakundeek sortzen dituzten *lobbiak* indartzea dira, hain zuzen. Beraz, ereduaren funtsa hurrengo baieztapenean oinarritzen da: merkatuak libreak badira eta pizgarriak egokiak, egoera hobetzeko irtenbideak aurkituko dituzte herrialde pobreek, betiere instituzio liberal eta demokrata batzuen zainpean (Collins, et al. 2009). Kanpo laguntza guztiz beharrezkoa ez den neurria da, eta historikoki hala ikus dezakegula baieztatzen dute korrante honen defendatzaileek.


Ikusi dugunez, eztabaida handia dago herrialde pobreei finantziazioa eskaini edo ez eskaintzearen artean. Nolanahi ere, badago inplizituki aipatutako elementu bat indar handia duena eztabaida honetan. Aurreko guztia sinplifikatuta, hurrengo galderari erantzun bat bilatzea izango litzateke hemen gakoa. Ba al dute pertsona pobreek beraien



kabuz pobreziatik ateratzeko gaitasun eta beharrezko baliabiderik? Edo beste era batera esanda, “pobreziaren tranpan” ote daude harrapatuta garapen bideko herrialdeak? Aurretik aipatutako korrante bakoitzak eredu bat sortu du galdera honi erantzuna bilatzeko eta eredu hauek aztertzea izango da nire zeregina jarraian.

## 1.2.Pobreziaren tranpan harrapatuta?

2.Irudia: Pobreziaren tranpan harrapatuta, S itxurako kurba.




Iturria: Repensar la pobreza

Kanpo laguntza beharrezkoa ikusten duten pertsonentzat (Nazio Batuetako agentziak, GKE, OME, Sachs...) munduak lehenengo grafikoaren moduko itxura hartzen du. Lehendabiziko ikuspegi azkar batean, egungo sarrerek etorkizunean izango diren sarreretan eragin handia izango dutela ikus dezakegu. Nolanahi ere, kurbaren itxura izango da funtsezkoa eredu ulertzeko. Arreta jarritz gero, kurbaren hasiera laua dela ikusten dugu, bigarren zatian gorakada handia du eta azkeneko zatia laua da berriro. Kurbaren itxura honi S itxurako kurba deitzen diote adituek.

S itxura hori, hain zuzen, izango da “pobreziaren tranparen” eragilea. Pertsona pobreenak S kurbaren lehenengo zati lauan egongo dira “harrapatuta”. Izan ere, diagonaletik behera daudenez, lehendabiziko tartean dauden pertsonen esperotako sarrerak, gaur egun dituztenak baino txikiagoak izango dira eta denboran zehar pobreagoak bilakatuko dira ezinbestean, inork ez baditu tranpa horretatik ateratzen. Bestalde, kurbaren bigarren zatian kokatzen diren pertsonen sarrerak, etorkizunean izango dituzten sarrerak baino txikiagoak dira. Pobreziaren tranpatik at dauden pertsona horiek S kurbaren zati gorakorrean jarraituko dute denboran zehar, beraien aberastasuna geroz eta handiagoa izango delarik. Gauzak horrela, eredu honen aburuz, kurbaren lehenengo tartean kokatzen diren pertsonak tarte gorakorrera aldatzen “laguntzean” dago gakoa. Izan ere, pobreziaren tranpa harrapatuta dauden gizabanakoek ez dute baliabide propiorik beraien egoeratik ateratzeko

3.irudia: Pobreziaren tranpa gabeko kurba, alderantzizko L itxura.



Iturria: Repensar la pobreza

Ekonomialari liberal gehienek (edo ekonomialari gehienek esango nuke), munduak bigarren grafikoaren itxura hartzen duela uste dute. Kurbaren itxuran erreparatuta, lehenengo grafikoaren eskuinaldeko zatiaren antza duela ikus dezakegu. Kurbaren hasieran malda azkarrago hasten da eta gero, lautzen doa. Bigarren grafikoa defendatzen duen teorian ez dago inolako “tranparako” tokirik. Teoriaren funtsa ondorengoan oinarritzen da: pertsona bakoitza denboran zehar aberatsagoa egiten joaten da, nahiz eta sarrerak oso murrizak izan daitezkeen, garrantzitsua da ohartaraztea kurba honetan pertsonen egoera ekonomikoa hobetzeko askorik ezin daitekeela egin. Pertsona bati emandako kanpo laguntza batek ez du bere errenta behin betirako hazi araziko, kasurik hoberenean, kurbaren zeharko desplazamendua bizkortuko du baina inolaz ere bere egiturazko errenta hobetu. (Collins, et al. 2009)

Pobreziari hurbilketa hau egin eta gero, ez dugu erabateko erantzun batekin topo egiten. Bi eredu ezberdin ditugu testuinguru berdinean, bakoitzak bere arrazonamendu teoriko eta frogapen enpirikoekin. Hala ere, ikerketa orok zenbait gogoeta dakar ezinbestean, eta bi teoria hauek aztertu eta gero zenbait ondorio ateratzea komenigarria da.

### 1.3. Beste ikuspegi bat

Seguruenik, ez da erantzun unibertsalik existitzen pobreziaren jatorria zein den ezagutzeko batetik, eta pobreziatik ateratzeko edo pobrezian harrapatuta jenderik dagoen jakiteko bestetik. Eszeptizismo honetatik abiatuta, azken aldian indarra hartzen ari den beste korrante ekonomiko batekin bat egitea gertatzen zait. Esther Duflo eta beste aditu askok, galdera eta erantzun erraldoien aurka kokatzen dira. Izan ere, galdera “erraldoi” batentzat bi erantzun kontrajarri zuzen egon daitezke.

Jar dezagun adibide bat galdera honi erantzunez. Pertsona pobeak pobrezian harrapatuta bizi dira garapen bideko herrialdeetan? Galdera honi ikuspegi ezberdinetatik erantzun dakioke eta erantzun ezberdinak lortu. Nutrizio gabeziak dituen pertsona bat hartzen badugu erreferentziatzat, gure erantzunak garapen bideko herrialdeak pobrezian harrapatuta daudela baieztatuko du, edo gutxienez pobreziaren tranpa existitzen dela. Nutrizio gabeziak dituen pertsonak geroz eta gutxiago ekoiztuko du eta aldi berean pobeago izango da denboran zehar, izan ere, bere gorputzak produktiboa izateko eskatzen dituen baldintzak ezin ditu ase. Bestalde, Dengeak jota dagoen herrixka batean

kokatzen bagara, usteldu gabeko merkatu eta gobernu batekin, eltxo-sareen merkatuak abagune ezin hobea eduki beharko lukeela pentsa genezake eta hortik hasita arazoarekin amaitu. Bigarren kasu honetan beraz, pobreziaren tranpa existitzen ez dela izango litzakete gure erantzuna.

Agian neketsuagoa izan daitekeen arren, behin betiko erantzunetatik urrundu eta kasuan kasuko erantzunak bilatzea da eraginkorragoa, izan ere, egoera bakoitzean erantzun ezberdin eta teoria ezberdin bat izango da aplikagarria, eta zaila iruditu daitekeen arren hori da pobreziarekin amaitzeko bide egokia. Pobrezia ez da bat batean amaituko, ezta gutxiagorik ere; pobreziaren amaiera prozesu luze eta neketsu baten ondorio izango da, non herrialdez herrialde politika ezberdinak aplikatu beharko diren, betiere beraien egoerara egokituta. (Bucley eta Casale, 2007). Edonola ere, tokian tokiko politika ekonomikoak aplikatzeko tresna eta mekanismo egokiak erabili behar izango dira, eta puntu honetan zehazki sartzen dira finantzak jokoan. Jarraian finantzek herrialdeen garapenean paper garrantzitsua jokatzen dutela ikusiko dugu, hau da, pertsona pobreek finantza zerbitzuetara jotzeko aukera izatea beraien egoera ekonomikoa hobetzeko ezinbestekoa dela.

## 2. MIKROKREDITUETATIK MIKROFINANTZETARA: MIKROFINANTZAK ESKLUSIO SOZIALAREN AURREAN

---


### 2.1. Aurrekariak

Garapen bideko herrialdeetako garapenaz gabiltzanean, mikrofinantzen inguruan entzun eta kontzeptu berri zein konplexutasun handikoa izan daitekela pentsa genezake, baina errealitatetik urrun gaude. Mikrofinantzen jatorriaren inguruan literatura eta eztabaida handia dago, hala ere, ziurtasunez esan dezakegu, garapen bideko herrialdeetan mikrofinantzen inguruko metodologia zein teknika “berriak” aurrezki eta kreditu sistema tradizionalen garapenaren emaitza direla. Konkrétuki, mikrofinantzen sektorean gaur egun asko erabiltzen den eta Afrikan eta Asian batez ere mendeetan zehar erabili izan den talde informalez osatutako aurrezki kolektiboak edo ROSCAS

izenaz (Rotating Savings and Credit Associations) ezaguna dugun metodologiaren kopia da.

Esan bezala, ROSCAs edo elkartasun maileguak, gizabanakoen taldeak dira, non ziklikoki eta erregulariki funts komun batera ekarpenak egiten dituzten. Funts horretan bildutako dirua taldeko partaide bakoitzari eskaintzen zaio ziklo bakoitzean. Adibide bat jarrita erraz ulertzen da metodo honen funtzionatzeko era. Imagina dezagun hamaika partaide dituen talde bat. Talde hau hilean behin elkartzen da eta partaide bakoitzak hamar dolar ipintzen ditu funts komunean elkarrekin batzen diren bakoitzean. Horrela, hilero taldeko partaide batek 110 dolar jasoko ditu. Taldea hamaika aldiz batuko da (hamaika hilabetetan zehar), partaide bakoitzak bere ordainketa jasotzen duen arte hain zuzen. Normalean talde hauek guztiz informalak dira, partaideak ezagunak dira beraien artean eta hein batean informaltasun horrek eragiten duen presio sozial horretan datza metodologia honen arrakasta. Erakunde mikrofinantzarioek metodologia klasiko honen aldeko apustua egin zuten garapen bideko herrialdeetan ROSCAs sustatuz. Gaur egun, instituzioek funts komunal hauetan ekarpen gehigarriak egiten dituzte maileguk gaitasun handiagoa izan dezaten.

#### 4.Irudia: ROSCAs metodologiaren funtzionamendua



Iturria: Norberak egin

Hala eta guztiz ere, mikrofinantzen historia hurbila garapen bideko herrialdeetan 1970eko hamarkadaren erdialde aldera hasi zen. ACCION (Americans for Community Co-operation in Other Nations) Brasilen, Grameen Bangladeshen eta Bank Rakyat Indonesia (BRI) Indonesian bertan, izan ziren mugimenduaren sustatzaileak, tokian tokiko pertsona pobreei beraien proiektuak aurrera eramateko maileguak ematen hasiz.

Hastapen hauetan, Muhammad Yunus irakaslearen esperientzia da seguruenik mundu mailan inpaktu handien izan duena, bere ekimena 2006 urtean saritua izan zen bakearen Nobel sariarekin (aipagarria bezain goresgarria da egituraz oinarri ekonomikoa duen ekimena bakearen nobela irabazi izana). Yunusi, Bangladesheko unibertsitatean irakasle moduan ari zela, zera bururatu zitzaion: bere herrialdeko pertsonen faktore produktiboen inbertsiorako kreditua eskaintzen bazien, beraien egoera hobera egin zezaketela. Faktore produktiboetan egindako inbertsioaren ondorioz lortutako gaineratikoa, kredituaren interesei aurre egiteaz gain, mailegu hartzaileen egoera ekonomikoa hobetzeko balio izango zitzaizela pentsatzen zuen ekonomialari gogotsu honek. Muhammad Yunusek, bere *El banquero de los pobres* (1998) liburuan idatzitako pasarte batean argi baino argiago ikusten da bere ekimena aurrera eramatera bultzatu zuen arrazoi nagusienetakoa.

Adibideak Bangladesheko herrixka batean banbuzko aulkiak egiten zituen emakume bati egiten dio erreferentzia. Emakumeak banbu kainabera (materiala) erosi beharko luke bere lana aurrera eramateko, tamalez baina, ez du kapitalik hasierako inbertsio hori gauzatu ahal izateko. Bere lana aurrera eraman ahal izateko beraz, bitartekari batek hasierako inbertsio hori eskaintzen dio berari aulki bat oparitzearen truke. Emakumeak bitartekariaren eskaintza onartzera behartuta ikusten du bere burua gaineratiko minimo bat lortuz eta inbertsiorako kapitalik lortu gabe (hasierako egoera berdintsura bueltatuz). Egoera hau Bangladeshen pertsona (emakumeak nagusiki) asko pairatzen zutela ikusirik, Yunusi irtenbide bat aurrera eramatea otu zitzaion. “Gure emakumeari hasierako kapitala eskaintzen bazaio aulki gehiago egiteko aukera izango du eta hauek merkatuko prezioan saltzen baditu, gaineratiko nahikoa lortuko du maileguaren interesak ordaintzeko batetik eta bere kapitala handitzeko bestetik.” Oinarrizko ideia hau bere proiektuaren abiapuntua izanik, Yunusek berak Grameen Bank (Pobreen bankua) sortu zuen. Duela 35 urte ideia bakan horretatik sortu zen proiektuak, 1.382 milioi dolar eskaini ditu mikro mailegutari eta 10.124 milioi dolarreko metaketa lortu

du, betiere iparra galdu gabe eta garapeneko herrialdeetan lan eginda (Grameen Bank, 2012).

Historiari so eginez, badira Yunusen ereduarekin parekotasunak dituztenak ere, esate baterako, XVIII. mendean batez ere Alemanian eta Irlandan eman zen finantzen hedapenarekin eta honek sortutako mugimenduarekin antzekotasun nabarmenak ikus ditzakegu. Jonathan Swiften ekimenak, pertsona pobreei bermerik gabeko mailegu txikiak emanaz eta itzulera progresibo eta malguekin, Muhammad Yunusek sorturiko Grameen Banken hastapenak gogora ekartzen dizkigu. Bi mugimendu hauen ezberdintasun nagusia hedapen bidean aurkitzen dugu: Swiften mailegu funtsak, elkarte eta pertsona askorentzat erreferentzia gisa balio izan zuen arren, ez zuen hedapen gaitasun handirik izan. Grameen Bankek ostera, bere metodologia beste erakunde batzuegatik imitatuta izateaz gain, hedapen ikaragarria izan zuen hasiera hasieratik (Torre, 2012).

Gurera etorri, garapen bideko herrialde ezberdinetan duela berrogei urte hasi zen mugimendu horrek eragin eta gorakada handia eduki du. Hala ere, hedapenari kritika zorrotzak eta hobetzeko bideak etorri zaizkio urte guzti hauetan. Jarraian prozesu hori azaleratzen saiatuko naiz, mikrokredituen oinarriekin hasiz.

## 2.2. Mikrokredituen oinarriak, eztanda eta mugak


Mikrokredituek aktibo eta berme bako pobreei maileguak ematea dute helburu, hauekin dirusarrerak sortuko dituzten bere kabuzko jarduerari ekin eta beraien buruak eta familia mantentzeko gai izan daitezten. Horregatik, tresna hau ez datza bakarrik diru txiki bat mailegatzean, baizik eta pertsona askoren potentzial propioa ustiatzeko aukera batean.

Gauzak horrela, pobrezia murrizteko tresna bezala uler daitezke mikrokredituak eta azken finean horixe litzateke beraien helburua, pobreenen bizi egoera hobetzea. Horretarako, negozio txikien finantzazioaren bitartez pertsona hauek pobrezia gorpil zorotik ateratzen laguntzea bilatzen da. Ragnar Nurkse (1907-1959) ekonomilariaren Pobrezia gorpilzoroaren Teoriak aitortzen duen lez, txirotasunean bizi den jendeak bere dirusarrera urriak kontsumora bideratzen ditu beren osotasunean, ez aurrezkirako ezta inbertsiorako gaitasunik ere izanik eta era honetan etorkizuneko errenta handitzeko

aukerekin bukatuz. Pobreziaren argazki honekin amaitu eta gurpil bertutetsu batean sartzeko era bakarra kanpo kapitalaren eskutik datorrela sinesten du Nurksek, baliabide finantzarioen eskutik hain zuzen. Bankuek oster, ez dizkiete baliabiderik eskaintzen ondare zein diru sarrera eskasiagatik kaudimen gabeko kontsideratzen baitituzte txiroak. Gainera, hain dira txikiak behar dituzten diru kantitateak, bankuei ez zaizkiela pertsona hauek errentagarriak suertatzen, operazio hauen kostu unitarioak, proportzioan, bolumen handiko eragiketekin alderatuz handiak baitira. Guzti honek, finantzazio beharretan dagoen baina finantzazioa eskuratzeko gaitasunik ez duen jendea kreditu informalerara jotzea eramaten du, bide hauen gehiegizko baldintzek jende hau pobrezian are gehiago murgiltzera eramaten duelarik.

Mikrokreditua beraz, oraintxe aipatu berri dugun sistema finantzario formaletatik bazterturiko eta krediturako sarrerarik ez duen milioika pertsona horientzako erantzun modura sortzen da. Bere funtzionamenduari dagokionez, produktu finantzario honek ohiko mailegu baten moduan funtzionatzen du non jasotako diru kopurua, hau da, printzipala, interesekin bat maileguaren epemugan bueltatzeko beharra dagoen. Diru prestazio txiki honek baina, etorkizuneko ikuspegia du. Hau da, behartsuenei finantzaketa eskaintzeaz arduratzen den sistema honek hauen etorkizuneko bideragarritasun finantzarioa bilatzen du non, mailegu-hartzaileak kanpo laguntza eta subentzioak denboran zehar modu jarraian jaso beharrean, sistemaren auto elikadura begirada jartzen duen (Abbad, 2010).

#### 5.Irudia: mikrokredituaren funtzionamendua



Iturria: Norberak egina



Eragiketa hauetan kopuruak txikiak izan ohi dira eta mailegua eman den kontinentearen arabera kopuru hau aldatu egin daiteke. Esate baterako, Asian kantitate honen batez bestekoa 100 eta 200 dolarren artean kokatzen da; Hegoamerikan berriz, kopurua 600 dolarretara igotzen da; Afrikan 100 dolarrera eta Europan azkenik, 10.000 eurora. Operazioa bere erraztasun eta burokrazia urriagatik bereizten da, eta baita bere birjarpen epealdi laburrengatik ere, izan ere, printzipal eta interesen itzultzea hilabete zein aste baten buruan egitea izaten da ohikoena. (Torre, 2012). Azkenik, mikroredituak ohiko maileguetatik eta finantza produktuetatik bereizten duen ezaugarri nagusia ondare-berme edo abalik behar ez izana dugu, izan ere, mikroredituaren ematea mailegatzailarenganako konfidantzan oinarritzen da, bai pertsona honek aurkezten duen proiektu edo jarduerarenganako konfidantzan, zein mailegatzailak aurkezten duen itzultze ziurtasunean.

#### 6.Irudia: mikroredituaren ezaugarriak

<b>MIKROKREDITUAK: EZAUGARRIAK</b>	
<b>ZER DIRA?</b>	Ohiko maileguak
<b>NORI ZUZENDUAK DAUDE?</b>	Sistema finantzario formaletatik bazterturiko eta krediturako sarrerarik ez duen jendeari
<b>MAILEGUEN KANTITATEAK?</b>	Txikia, eta herrialdearen araberakoa
<b>BIRJARPENAK?</b>	Epealdi laburretan
<b>BUROKRAZIA?</b>	Urria
<b>BERMEAK?</b>	Konfidantza soila

Iturria: Norberak egina

Sistema honek arrakasta ziurtatzen duela ematen duen arren, kredituan oinarritutako politikak ezbaian daude inoiz baino gehiago azken urteetako emaitza eta gertakari larrien ondotik. Kreditu sistemaren kritikak lau multzo nagusietan banatuko ditugu.

- Estatuaren papera mugatuegia. Interbentzionistek batez ere, mikrokredituen sisteman, estatuaren papera oso mugatuta dagoela eta horrek ondorio kaltegarriak ekar ditzazkela defendatzen dute. “Estatuaren papera mugatzeak desregularizazioa ekartzen du ezinbestean eta horrek, iruzurra eta herrialdeen ongizaterako bestelako egite kaltegarriak ahalbidetu egingo du”. Pentsatzeko eredu honen ordezkari nagusia David Roodman autorea dugu, non berak idatzitako “Due Dilligence” liburuan mikrokredituen eragina pobrezian negatiboa dela baieztatzen duen.
- Neurritz kanpoko interes tasak. Aurretik aipatutako desregulazioak %100 baino altuagoak diren interes tasak ekarri ditu zenbait kasutan. Mikrokredituekin lotuta dauden iruzurrezko programak eta prestatzaileek ezartzen dituzten presio neurri altuak ondorio dramatikoak ekarri zituen Andhra Pradesh-ko (India) eskualdean, denbora tarte txikian ehundaka pertsona bere buruaz beste egin zutelarik (Pérez, 2014).
- Eraginkortasun eza. Pertsona pobreei kreditua ematea transakzio zein administrazio kostu handiak dakar pertsona aberatsekin konparatuta. Sarrera gutxi eta kostu handien konbinaketa horrek sistemaren eraginkortasunaren porrota ziurtatzen duela baieztatzen dute kritikoeak. Mikrokredituaren sistema beraz, pobrezia murriztapena baino, sistemaren eta desparekotasunen muturreratzea ekarriko du.
- Pertsonetik eraginkortasun eza. Hau da, mikrokreditua produkzio faktoreetan inbertitzeko dago eskainita, geroago inbertsio horri errendimendu bat ateratzeko. Pobrezian bizi diren pertsona guztiek ez dute produkzio faktoreetan inbertitzeko ahalmenik bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, produkzio faktoreak mugatuak dira eta bestetik pertsona orok ez du inbertitzeko gaitasunik edo mailegu batekin mozkinak lortzeko gaitasunik. Gainera, kreditu sistemaren egitura ez dago zuzenduta dagoen gizataldearen egoera eta neurrira egina. Ordainketa edo kredituaren itzulpenen epealdiak hain laburrak izateak, aste eta hilabeteko epe bitartekoak, ez du mikrokredituak eskatu ohi dituen jendearen diru sarreren erritmoa jarraitzen. Burutzen diren jarduerak urtarokotasunaren menpe egonik, nekazaritza eta laborantza jarduerak gehienbat, ez dute kuota hauei aurre egiteko gaitasunik.




zerbitzuak, etxebizitza maileguak eta diru transferentzietarako zerbitzuak. Gainera, zerbitzu guzti hauek ez dute soilik babes eskaintzeko balio, baizik eta negozio txikiak martxan jartzeko, enpresen mozkinak handitzeko, arriskua murrizteko, kontsumoa orekatzeko eta babes finantzarioa bermatzeko. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da mikrokredituetatik mikrofinantzarako prozesu horretan lan egiten jarraitzea (Lacalle 2008).

Ulertu dugun moduan, mikrofinantzen kontzeptua mikrokredituarena baino zabalagoa da. Izan ere, mikrofinantzek ez diote bakarrik kredituari erreferentzia egiten, baizik eta eredu finantzario formalaren barruan ez dauden pertsonen eskaintzen zaizkien zerbitzu finantzario guztiei.

Rogaly-ren (1999) definizioaren arabera “ Mikrofinantzak gordailu, seguru, ordainketa, transferentzia, terminologia finantzarioaren irakaskuntza, mailegu pertsonal eta mikroenpresentzako maileguak bezalako zerbitzu finantzarioen hornidura dira; dirusarrera txikiko zein erakunde finantzario ohikoen eskaintako produktu komertzialen erabileratik bazterturik dauden pertsonen neurria eginak.”

Esan bezala, azken hamar urteetan erakunde mikrofinantzarioak aurrezki produktu, aseguru zerbitzu, pentsio planak eta hipoteka maileguak eskaintzen hasi dira garapen bideko herrialdeetan. Bestalde, zerbitzuak dibertsifikatuz joan diren heinean, hauek eskaintzeko prest dauden eragileek ere gora egin dute. Gaur egun, GKE, kooperatiba ezberdinak, behartsuenei bideratutako laguntza talde informalak, mailegu elkartasunak, posta bulegoak, bankuak, aurrezki kutxak, aseguru eta mailegu elkarteak eta teknologia berrietan jarduten diren enpresak mikrofinantzen sektorean aktiboki egiten dute lan herrialde behartsuetan garapena lortzeko helburuarekin (CGAP, 2009).

## 8. Irudia: Pobreziaren piramidea



Iturria: Glosario básico de las microfinanzas.

Mikrofinantzen funtzionamendua duten hobeto ulertzeko pobreziaren piramidea hartuko dugu erreferentzia moduan. Begirada azkar batean zera ikus dezakegu, zerbitzu finantzarioak jasotzen dituzten agenteek piramidearen oinarria osatzen dutela. Benetan pentsatzekoa da, guk ezagutzen dugun eta munduko ekonomia sistemaren gidaria den finantza sistema munduko pertsonen ze ehuneko txikirekin egiten duen lan (100 milioi pertsona eta 1700 milioi pertsoneri hein txikiago batean). Ondorioz, aipagarria da munduan zenbat pertsoneri eragin diezaioketen mikrofinantzek (aukera gabeko 4000 milioi baino gehiago diren pertsona horiei hain zuzen). Ildo berdinetik eta mikrofinantzek munduan hartzen duten azalera ikusita, ulertzekoa da zerbitzu eta produktu finantzarioen dibertsifikazioan ematen ari den *boom*-a, betiere tokian tokiko koiuntura eta egoera sozioekonomikora egokituz.

Nurksek teoria interesgarri bat landu zuen mikrofinantzen funtzionamendu eta eraginaren inguruan. Ekonomialariaren aburuz mikrofinantzak behetik gorako prozesu lineal batean eragiten du. Lehenik, zerbitzu finantzario baten eskaintzak bezeroaren jarduteko era aldatuko du, adibidez mikroenpresa baten sorkuntzarekin. Era berean, pertsona horren ekimenak banakoaren diru sarreraren gorakada eragingo du. Mikroenpresaren mozkinen gorakada enpresan lan egiten duten pertsonen familien diru sarreraren gorakada ahalbidetuko du, familia horien (gutxi izango badira ere) segurtasun ekonomikoaren hobekuntza eskutik dakarrela era berean. Segurtasun ekonomikoa


oinarrizko elementua dugu Nurkseren teorian. Izan ere, segurtasun ekonomikoa duen familia batek aldaketa onuragarriak gauzatuko ditu elikadura ohituretan, osasun eta etxebizitza sistemetara eskuragarritasun handiagoa izango du eta genero erlazio berdintasunerako pausuak ematen hasiko dira familiaren baitan. Azken batean, mikrofinantzak eskainiko duen segurtasun ekonomik horrek etorkizunerako aukera ekonomik eta sozialak ekarriko ditu familiako kideentzat. Baina Nurkse mikrofinantzen eragina haratago joan daitekeela defendatzen du, familia talde batean ematen diren aldaketa sozio ekonomik horiek, inguruko beste familia batzuetan eragin positiboa ekar dezakeela dio. Era horretan eta denborarekin, mikrofinantzak heltzen diren herrixka horietan erlazio sozio ekonomikoak aurreratuz joango dira, eta beraiekin batera egitura sozial eta politikoak ere garatze prozesuan murgilduko dira (Perossa, et al. 2016).

## 2.4. Mikrofinantzak gaur egun

Denborak, Nurkseren argudioak errealitate gertu daudela erakutsi du. Ukaezina da mikrofinantzek garapen bideko herrialdeetan gorakada izugarria izan dutela, bai eskeinitako zerbitzu eta agenteetan bai kontsumitzaile eta bezero kopuruan. 2009ko Mikrokredituaren Gailurreko Kanpainiako datuen arabera erakunde mikrofinantzarioen bezeroak 155 milioi bezeroetara iritsi dira.

Global Findex Databasen arabera, 2011 eta 2014.urteen artean 700 milioi pertsona kontu finantzario baten jabe egin ziren. Gainera, hiru urte berberetan, kontu finantzario baten jabe ez zirenen kopurua (banku gabeak edo unbanked ingelesez) %20a jaitsi zen. Egun, munduko populazioaren %38a banku gabea da (2 bilioi pertsona), 2011an oster, munduko populazioaren erdia inguru multzo honen partaide zen.

## 9.Irudia: Munduan kontu finantzario baten jabe %-tan.



Iturria: Global findez database (2014)

Azken urteotan, finantza inklusiorako aurrerapausuak eman diren arren, hobetzeko tarte handia dago oraindik. Baieztapen hau datuetara ekarriz, Global Findez Databasek aurrera eramandako inkestan, garapen bideko herrialdeen biztanleen %54ak kontu finantzario baten edo gehiagoren jabe dela baieztatzen du. Garapen bideko herrialdeen artean ere ezberdintasun nabarmenak adierazten dituzte estatistikek. Asia eta Afrika erdialdean %15a inguru dira kontuen jabe, Hego Amerika eta Asian ekialdean ostera, %70a ingurura igotzen da kontu jabeen kopurua. Genero desparekotasunean ere, emaitzak ezarritako helburuetatik urrun daude oraindik. 2011an emakumezkoen %47ak eta gizonezkoen %54ak baieztatzen zuten kontu finantzario baten jabe izatea. 2014ean, tarte konstante mantendu egin zen, emakumeak %58 eta gizonezkoak %65arekin.

Ibiltzeko asko geratzen den arren, inklusio finantzarioaren bideko lehenengo pausuak bide egokitik ematen ari direla dirudi. Azken urteotan ostera, pausuak ematen jarraitzeko arazo nagusiarekin egin dute topo erakunde mikrofinantzario askok, bideragarritasun ekonomikoa hain zuzen. Aurretik zerbitzu finantzarioak jaso ez duten pertsonetara heltzerako garaian, ekonomikoki sostengarriak diren proiektuak diseinatzea da jarraian aztertuko dugun erronka.

## 2.5.Sostengarritasun finantzarioa eta estatuaren rola

Mahaigainean dugun gaiaz hitz egiten dugunean, sostengarritasun edo jasangarritasun hitza maiz entzungo dugu. Sostengarritasuna, denboran zehar eta baliabide propioekin ekonomikoki egonkortasuna lortzeko gaitasuna da, bezero eta kontsumitzaileek jasoko dituzten zerbitzuak eta zerbitzu hauen erabilera ziurtatuz. Beste era batean esanda, sostengarritasuna, gure testuinguruan, gaurko beharrak etorkizuneko beharrak arriskuan jarri gabe asetzean datza.

Mikrofinantzen sektorean kontzeptu berria bezain eztabaidagarria dugu hau. Izan ere, esan berri dugun moduan, erakunde mikrofinantzario bat, bere gastu totalak pasiboekin estaltzen dituen izango da finantzarioki jasangarria, hau da, inolako kanpo diru laguntza beharrik gabe. Jasangarritasunaren kontzeptuak beraz, proiektuen etorkizuneko bideragarritasunarekin egiten du bat. Egoera honetan sortzen zaizkigu eztabaida sortuko dituen bi funtsezko galdera. Alde batetik, sostengarritasun finantzarioa auto elikaduran oinarritzen dela ikusita, ze toki hartzen du tokian tokiko administrazio publikoak? Eta beste alde batetik, bateragarria al da proiektuen bideragarritasuna etorkizunean eta errentagarritasunaren maximotzea?

Garapen bideko herrialdeetan lan egiten duten erakunde mikrofinantzarioen bezeroak eta eskaintzen diren zerbitzuak kontuan hartzen baditugu, transakzio kostuak eta unitateko kostu administratiboak oso handiak direla ikusiko dugu, eta are handiagoak interesen ordainketekin jasotzen diren diru sarrera txikiekin alderatzen baditugu. Egoera honetara helduta bi bide aurkitzen ditugu jasangarritasun finantzarioa lortzeko (Lacalle 2008):

- Operazio kostuen murrizketen bitartez. Eskaera prozesu errazak indarrean jarritz, bulego eta langileen soldata xumeak ezarriz, erakundeak deszentralizatuz, tokian tokiko erabakiak hartuz eta burokrazia kostuak murriztuz, sistema informatiko eta enplegu jasotze sistema eraginkorrek sustatuz, tamaina handiko informazio eta zerbitzu kopuru handiak estali ahal izateko ...
- Transakzio zein administrazio kostuak estaliko dituen interes tasak ezarriz.

Jasangarritasun propiorako bidean, aurrez galdetutako lehenengo galderari erantzuteko gaitasuna dugu orain. Izan ere, estatuak laguntza ekonomikoa eskaini edo kanpo



inbertsioa bilatu beharrez, funtzio erregulatuak gauzatu beharko luke, baita erakundearen independentzia eta segurtasuna bermatu ere.

Lehenago aipatu dudan moduan, erakundearen finantza jasagarritasun propioaren kontzeptua eta erakunde hauek martxan jartzeko beharra duela urte gutxi sortu zen izate publikoen dohaintza eta diru laguntzen aurrean eman zen jarrera aldaketaren ondorioz. Izan ere, azken hiru hamarkadetan, garapen bideko herrialdeetan dohaintza eta diru laguntzetan oinarria zuten garrantzia eta izen handiko proiektu mikrofinantzario asko itzaltzen joan ziren hasi eta urte gutxira. Gobernuen koiuntura ekonomiko defaboragarriak eta kanpo diru laguntzak eskaintzen zuen babes eta erregulartasun ezak herrialde azpi garatueta bizi ziren hainbat eta hainbat bezero, mailegu, aurrezki sistema eta bestelako beharrezko finantza zerbitzuen eskaintzarik gabe utzi zituen.

Emaitza hauek ikusita, eztabaida sostengarritasun ekonomikoaren eta populazio pobrenei zuzendutako zerbitzu eskaintzaren arteko bateragarritasun mailan dago. Eztabaida guztietan bezala bi ikuspuntu kontrajarri ditugu. Alde batetik *The Consultative Group to Assist the Poor (CGAP)* *United Nations (UN)* eta *United States Agency for International Development (USAID)* bezalako erakundeek praktika gomendagarriak idazten dituzte erakunde mikrofinantzarioek sostengarritasuna lor dezaten. Beste aditu askok ordea, beste iritzi bat defendatzen dute izan ere, hauen aburuz, pobrenei zerbitzu finantzarioak eskaintzea eta errentagarritasuna lortzea ez dira bateragarriak, eta horregatik beste eztabaida hau planteatzen dute: noraino hel daiteke jasagarritasun finantzarioa? Pertsona pobreenak kanpoan utzi beharko genituzke jasagarritasuna lortzeko eta berriro lau hamarkada atzera egin? (Buckley, et al. 1997) . Edonola ere, mikrofinantzen sektorearen buruan dauden erakunde publikoak jasagarritasuna eta pobrenekin lan egitea posible dela argudiatzen dute. “66 erakunde mikrofinantzariok jasagarritasun finantzario propioa epe luzean eskura daitekeela frogatu dute, 66 erakunde hauetatik 18k munduko herrialde pobreneko pertsona pobrenekin lan egiten dutelarik” (Daley-Harris, 2007).

Aipatzekoa da, mikrofinantzen eredu berri honek ez duela pobreziaren aurkako borroka alde batera uzten. Ereduak, kanpo faktorearen menpe egon ordez, etorkizuneko jasagarritasun egonkorra bilatzen du, sistemaren auto elikadura oinarri izanik, geroz eta behartutako bezero gehiagori zerbitzuak eskaini ahal izateko. Hala ere, kontuan hartu beharra dago, jasagarritasuna lortu behar horrek sektorea helburu sozialetatik

urrundu lezakeela eta esklusio soziala ezaugarritzat duen finantza sistema bat berrezarri. Honetan ez jausteko, izate publikoen zeregin erregulatzailerak da hemen garrantzitsua, finantza sistema inklusibo bat bermatu eta erakundeei helburu lorgarriak ezarriz, aipatutako auto elikadura sistema ahalbidetuko duena.

## 3. IKERKETA KASUA: BOLIVIA

---

### 3.1. Boliviari mirariaren eragileak

Ekonomiaren ikuspegitik egiten den analisi batean, egokia iruditu zait ikasten ari naizen prozesua, mikrofinantzek azken hamarkadetan jasan dutena alegia, errealitatera ekartzea. Prozesuaren jatorri, kausa, ondorio eta emaitza, lagin konkretu batean ikastea beharrezkoa bezain garrantzitsua ikusten dudanez herrialdearen aukeraketa prozesua ez da erraza izan. Garapenerako ekonomian, mikrofinantzetan izan duen susperraldia dela eta da ezaguna Bolivia. Esaterako, 2013an munduko bankuak munduan mikrofinantzen garapenerako baldintzetan bigarren postuan zerrendatu zuen Bolivia. Gainera, interes tasen ezarpenean eta berankortasun tasetan erreferentziatzat hartu zuen munduko bankuak beste garapen bideko herrialde guztien aurretik. Esango genuke beraz, Boliviak (ekonomia baliabide murrizta, inbertsio gutxi jasotzen duen eta faktore produktibo gehiegirik ez duen herrialdea), ezerezetik nazio ekonomia sustengatzen duen sistema mikrofinantzario bat sortu duela. Baina zer egin du Boliviak “mirari” hau eman dadin?

Mikrofinantzen susperraldia Bolivian ez da gauetik egunera etorri den “miraria”, eta ez da ere administrazio publikoak hartu duen neurri ekonomiko politiko batengatik eraginda izan. Mikrofinantzen susperraldia faktore eta gertaera anitzen metaketak sorrarazi du. Ikasi dugun teoria eta aurrekarietaz baliatuz, gertaera horien ikasketak gure lanaren hasierako galderak erantzuten lagunduko digute. Ideia garbi bat izateko, finantza sistemaren aldaketa eta ondorengo hedaldiaren eragileak multzo ezberdinetan banatuko ditugu. Mikrofinantzen sistemaren sorrera Bolivian aurretik indarrean zegoen finantza sistema ahularen jasagarritasun ezaren ondotik etorri zen.

Alde batetik, finantza sistemaren egitura krisia eragile nagusi bat izan zen: finantza zerbitzuak eta zehazki kreditua populazioaren pribilegiatu gutxi batzuei eskaintzen zitzaizkien bakarrik, populazio pobreak (herrialdearen gehiengo nagusia, alegia) ez zuen

mikro aurrezkirako ohitura ezta jarrerarik ere eta hiri eremuetan bankarizazioa ezegonkorra zen bitartean, landa eremuetan ez zen izate finantzario edo antzeko izaterik existitzen. Aldaketaren beste eragile nagusi bat, koiuntura krisi politiko eta ekonomikoa izan zen: krisialdi ekonomikoaren ondotik, Boliviako Banku Zentralak porrot egin zuen 1992an eta ateak itxi behar izan zituen. Banku gorengoaren porrota krisi ekonomikoa larriagotu egin zuen eta merkataritza banku pribatu garrantzitsu asko babes finantzariorik gabe gelditu ziren. Horrek guztiak, berez ezegonkorra zen sistema finantzarioa ahuldu zuen eta bitartekariak, lukurkeriaz jokatzuz (interes tasa altuak ipiniz, egoera baliatuta) sistemaren gailentzea hartzen hasi ziren.

Testuinguru honetan, zergatik jo zuen Boliviak sektore mikrofinanziariora? Eskaintza eta eskari baldintza faboragarriek mikrofinantzen miraria ahalbidetu zuten. Eskaintzaren aldetik aipatzekoak diren baldintzak hauek izan ziren: (Armendáriz eta Labie, 2011)

- Erregulazio finantzarioaren berrikuntza (1928ko legearen berrikuspena) aurrera eramaten hasi zen, guztiz lur jota zegoen sistema finantzarioa berpiztu nahiean.
- Mikrofinantzatarako testuinguru erregulatzailerik faboragarria, non sektoreari oso traba gutxi jartzen zitzaion.
- Kanpotik, garapenaren aldeko erakundeek eskutik batez ere, eskusio finantzarioari aurre egiteko etorri ziren laguntzak. Mailegu metodologia berrien ezartzea etb.
- Politika publikoen gabeziak mikrofinantzen agerraldia suposatu zuen ere. Herrialdearen egoerari aurre egiteko administrazio publikoaren gaitasun ezak mikrofinantzen sektorearen bidea ireki zuen.

Eskariaren aldetik ere, mikrofinantzen susperraldirako nolabaiteko giroa sortu egin zen. Hona hemen faktore nagusiak:

- Administrazio publikoarenganako konfiantza eza. 1992. urteko Banku Zentralaren porrotaren ondorioz, boliviarrak biztanleek ez zuten nahi estatuaren dirua bere eskuetan ikusi, eta are gutxiago bere dirua estatuaren eskuetan utzi.
- Beharra. Bitartekariak ziren finantza sistema kontrolatzen zuten agenteak eta herrialdearen egoeraz baliatuta interesak nahi bezala jartzen zituzten. Legez kanpoko agente hauei aurre egiteko beharra zegoen.

Merkatal banku pribatuenganako mesfidantza. Alde batetik aurrekariak eta egoera ekonomikoak mesfidantzarako arrazoiak ematen zituzten. Bestetik, biztanlegoaren zerbitzu eta produktu finantzarioen ezagupen ezak beste era bateko finantza erakundeak eskatzen zituzten.

Ikusi dugun moduan, mota ezberdinetako hainbat faktorek mikrofinantzen susperraldi eta ondorengo hedapenerako testuinguru egokia sortu zuten. Horrela, zenbait ekimen pribatuak (Bancosol) eta Gobernuaren Kanpoko hainbat Erakundeak argi ikusi zuten mikrofinantzen garapenerako momentu egokia zela eta pertsona pobreen aldeko politikak aurrera eramaten hasi ziren (ASOFIN, 2013).

### 3.2. Mikrofinantzen egoera Bolivian gaur egun

Eskari, eskaintza eta merkatu faktoreen arteko elkar ekintzek sektorearen hedaldia mantendu izan dute azken bi hamarkadetan, betiere estatuaren paper erregulatzaileraren baten gidaritzapean.

Ezaguna den moduan, mikrofinantzen sektorea, Boliviaren ekonomiaren oinarri bilakatu da estatuaren paper erregulatzaileraren ondorioz. Zerbitzu finantzarioen araudiak Bolivian estatuaren egite erregulatzaileraren defendatzen du, izan ere, “bitartekotza jardueraren finantzario eta zerbitzu finantzarioen eskaintza guztiok izan behar dugun eskubidea da, guztion interesak gutxi batzuen interesen aurrean ipiniz”. Gainera, “sektorearen jardueraren bakoitzak funtzio soziala izan behar du helburu goren, garapen integralerako helburuen lorpenaren bidean, ongizate estatu bat lortu, pobrezia eta eskusio soziala murriztu eta herrialdearen egoera ekonomikoa hobetzeko”. Gauzak horrela, administrazio publikoek eskumen zabalak dituzte mikrofinantzen sektorea ongizate publikoaren mesedetan arituko dela bermatzeko. Beste ekimen askoren artean, estatuak ondorengo neurriak har ditzazke: sektore produktiboari eta interes sozialak dituzten etxebizitzeari interes tasa maximoa ezarri, tasa pasiboaren maila minimoa inposatu (aurrezki eta deposituetan ezartzen den interes tasa), landa eremuetan finantza zerbitzuak bultzatzeko asmoz baldintza eta ekimen bereziak sustatu ...

Izate publiko eta ekimen pribatuaren arteko bizikidetzaren baketsu eta eraginkorrak mikrofinantzen sektorea finantza sistema nazionalaren (FSN) oinarri bilakatzea eragin

du. FSNan parte hartzen duten pertsona guztietatik %64a mikrofinantza zerbitzuak jasotzen ditu eta mikrofinantzen aurrezki kopurua %45koa da. Hiri eremuetan agentzien %49ak mikrofinantza zerbitzuak eskaintzen ditu eta landa eremuetan %58ra igo egiten da (munduko bankua, 2014). 2013.urtearen bukaeran mikrofinantzen sektorearen zorroa 4 mila milioi US\$ ingurukoa zen, finantza sistema nazional zorro osoaren %33a hain zuzen. Errentagarritasuna alde batera utziz, mikrofinantza zorro osoaren %35a baino gehiago garapenerako faktore produktiboetan inbertitu ziren, herrialdeak oraindik ere pairatzen duen eskusio finantzarioari aurre egiteko asmoz. Aipatzekoa da ere, datu faboragarri hauek berankortasun eta zorpetze tasa egokiekin bat eman zirela bestelako sektoreak baino datu hobeez, alegia (ASOFIN, 2014).

Mikrofinantza sektorearen hedapena eta aipatu berri ditugun datuak konkretuki, eragin zuzena izan dute pobrezia eta desparekotasunaren murrizketan Bolivian. 2000. urtetik 2013ra Gini koefizienteak 15 puntu (ehuneko puntu) egin zituen behera, 2013an 48 puntu adierazten zuelarik. Bestalde, pobrezia bretxa aldaketa nabarmena jasan izan du sektore mikrofinantzarioak indarra hartu duenetik Bolivian. 2000. urtean pobrezia bretxa puntu gorena adierazten zuen ehuneko 40 punturekin; hamalau urte geroago, 2014ean alegia, ehuneko 17 puntukoa zen pobrezia bretxa Bolivian. Pobreziaren eragina populazio osoarekiko %, eta pobreziari lotutako bestelako estatistikak ere nabarmen egin dute behera Bolivian mikrofinantzen hedaldi prozesuarekin bat eginez (World bank database, 2014).

### 3.3. Boliviaren mikrofinantza sektorea eta pobreziaren aurkako borroka etorkizunari begira

Ikusi berri dugu moduan, mikrofinantzekiko eman den Boliviari prozesu ekonomiko berriztatua pobreziaren murrizketarako eraginkorra suertatu da. Jasanezina zen egoera ekonomiko eta politiko batetik mikrofinantzen aldeko testuinguru apropos batera pasa zen, zeinak estatuaren zuzendaritzapean sektore egonkor eta eraginkorra bilakatu den Boliviari ekonomiarentzat. Hala eta guztiz ere, Boliviari ekonomian eta finantza sisteman konkretuki, hobetzeko tarte handia dagoela kontuan hartuta, hainbat erronka ditu ikusgai Boliviari sektore mikrofinantzarioak.

Lehenik eta behin, azaldu berri dudan eskusio sozialaren aurkako eredu mikrofinantzario hau Bolivian dagoen pobrezia guztiarekin bukatzeko ez dela nahikoa aitortu beharra dago. Orain arteko ekimenak, benetako erronkei aurre egiteko lehendabiziko pausua dira soilik. Sektoreak lortu duen kapital ahalmena bide, sendotasun erregulatuaren gidaritzapean, mikrofinantzen sektorea Bolivian helburu garrantzitsuei aurre egiteko prest dago.


- Egiturazko aldaketa baten biderako aurrerapausoak ematea premiazkoa da. Kapitala metatzen ari den guneetan lehen mailako industria sustatuz, teknologia berrietan inbertituz eta erdi mailako klasea ahaldunduz.
- Produktu eta zerbitzu finantzarioen dibertsifikazioan eta pertsonen beharretara egokitzeko bidean lan egin. Lortu diren emaitzak mikromaileguren eskaintzaren ondotik etorri dira. Pertsonen aurrezteko, etxebizitza aseguru bat edukitzeko edo bestelako aseguruaren bat edukitzeko aukera ematen bazaie, sektorearen garrantzia eta eragina handiagoa izango da.
- Landa eremu eta herririka txikitara heldu. Boliviako herririka asko eskusioan bizi dira oraindik. Boliviako bazter guztietara heltzea eta garapen aldeko politikak aurrera eramatea da mikrofinantzen erronka handienetako bat.

Hala ere, pobrezia murriztu eta garapena sustatzeko sektore mikrofinantzarioak aurrera daramatzan ekimenak beharrezko baldintza dira baina inondik inora nahikoak. Helburu gorenak lortzeko bidean, sektore finantzarioa, ekonomia erreala eta estatua bera barne hartzen dituen elkarrekintza publiko-pribatu batean jardutea ezinbestekoa da (Marconi, 2014).

Boliviaren azterketa erreferentziatuz hartuz, lanaren hasieran teorikoki planteatzen genituen lau galderari erantzuna emateko prest gaude jada. Lehenengo galderari erreparatuz (ea mikrofinantzek inklusio finantzarioa sustatu edo/eta lor dezaketen), erantzunak eztabaidarako parada gutxi uzten digu. Mikrofinantzak aurrera pauso handiak eman ditu eros ahalmen gutxiko pertsonen eskubide finantzarioak asetzeko bidean. Emaitzak gainera frogagarriak dira arlo honetan, izan ere, Muhammad Yunus irakasleak, mikrofinantzen prozesua abian jarri zuenetik, garapen bidean bizi diren milioika pertsonak lortu du maileguren bat jasotzea eta milioika agentzia sortu dira ordutik hona. Finantza inklusioaren arloan emaitza faboragarriak izan diren arren, hobetzeko tarte handia dago. Lanean aipatu dudan moduan, errenta baxuko pertsonen

zerbitzuak eskaini eta errentagarritasun maximoa lortzea ez da normalean lan erreza izaten. Horregatik Asia eta Afrikako herrixka askotan ez dute finantza zerbitzurik jasotzeko eskubiderik izan. Hala eta guztiz ere, inklusioaren atal honetan, baikorrak izan beharra dugu mikrofinantzek eragin dituzten emaitzekin. Horretarako, Bolivia hedapenaren erakusgarri bikaina dugu eta hala erakusten du ondorengo mapak.

#### 8.Irudia: Mikrofinantzen hedapena Bolivian



Iturria: The handbook of microfinance

Bigarren galderaren erantzunaren inguruan ostera (zenbateraino eragiten dute mikronantzak pobreziaren murrizketan?), eztabaida handiagoa da. Esan berri dugun moduan, ukaezina da mikrofinantzen sektoreak eskusio finantzarioan bizi ziren milioika pertsoneri finantza zerbitzuren bat jasotzeko aukera eskaini diela. Ezin dugu ahaztu ere ez, mikrofinantzek aukera ekonomiko eta produktibo zein merkataritza eta zerbitzu aukerak sortzen dituzten heinean, pobreziaren murrizketarekin positiboki erlazionatuta daudela. Egia esan, ez gaude errealitatek urrun, egin diren ikasketen arabera, inklusio finantzarioa eta pobreziaren murrizketa positiboki koerlatuta daude. Hala ere, ekonomialariaren printzipio nagusietako bati so eginez, kausalitatea eta koerlazioak ez dute askotan bat egiten. Horregatik, finantza inklusioak pobrezia murrizten duen arren, ezin dugu aho betez eta ziurtasun osoz esan mikrofinantzek pobrezia murrizten dutenik, ebidentzia enpiriko eta ekonomiko gehiago behar dugulako,

hain zuzen. Gauzak horrela, politika eta ekimen mikrofinantzarioak aurrera eramateko garaian, beharrezkoa da helburu neurgarriak ezartzea. Horrela, mikrofinantzek pobreziaurren murrizketan zer nolako eragina duten jakingo dugu eta lortutako ondorioekin, politika berriak eta sektorearen hedapenerako bideak ireki daitezke.



Bateragarria al da mikrofinantzak jokatzeko duten paper soziala (garapena sustatzea helburu gorena izanik) ekonomikoki jasagarria izatearekin? Gure ikerketa kasuari so eginez, denboran zehar eta baliabide propioekin ekonomikoki egonkortasuna lortzeko gaitasuna posible dela baieztatuko dugu. Aipatu dugun moduan, estatuak ezinbesteko funtzioa gauzatu beharko luke arlo honetan. Alde batetik, erakunde mikrofinantzarioei transakzio kostuak sorrarazten dizkieten kostuak arindu beharko lituzkete erakundeen jasagarritasuna ahalbidetuz. Beste alde batetik, pertsona guztiei inklusio finantzarioa, babesa eta zerbitzuak zein eragiketa finantzarioak jasotzeko eskubidea bermatzeko beharrezko arauak ezarri beharko lirateke. Ondorioz, ekimen askok porrot egin duten arren, posible da garapen bideko herrialdeetan garapena sustatzea eta erakundeen egonkortasun finantzarioa epe luzean lortzea. Horren froga Bolivian dugu inon baino argiago.

Azkenengo galderari, ea posible den gaitasun ekonomiko gutxiko garapen bideko herrialdeetan eskusio sozialari aurre egiteko finantza sistema baten sorrera, erantzuna ikerketa kasuaren osotasunak ematen dio. Lanaren atal honek, egitura finantzario sendo bat banakako ekimen askoren bateratzearen eraginez sor daitekeelaren froga ezin hobea da. Posible da Boliviari eredu beste Asia edo Afrikako beste herrialde batzuetan ezartzea eta pobreziaurren aurkako aurrera pausuak ematen jarraitzea. Posible da, azken batean, finantzak pobreziaurren aurkako tresna bezala erabiltzea.



## 4. ONDORIOAK

---

Lanean zehar irakurtzeko aukera izan dugun moduan, ikerketa honetan pobreziaren erroek eta txirotasuna beraren inguruko gai guztiek sortarazten diguten sentsibilitate eta hunkipena; finantzen oinarri diren zenbakien hoztasun eta krudelkeriarekin kontrastean jartzen saiatu naiz. Materia bateraezinak direla aitortzetik urrun, bien arteko distantziak hurbildu eta elkarrekintza posiblea eta eraginkorra dela frogatzean jarri dut ahalegina.

Beraz, honen bidean, hasieran planteatutako helburuei erantzuna emanaz, hurrengo ondorioak atera ditut galdera konplexuak eta askotan erantzun ezinak mahai gainean ditugula aurretiaz jakinik.

Lehenik eta behin, pobreziari aurre egiteko formula unibertsalik ez dagoela ulertu dugu eta honen lekuko dira pobreziaren jatorri zein murrizketaren inguruan ezagutzen ditugun teoria anitzak. Ikusi dugun legez, badaude alde batetik, kanpo laguntza arazo honen erantzun moduan ikusten dutenak eta bestetik, sistema kapitalistaren funtzionamenduan sinesten duten iritzi liberalagoak. Edonola ere, argi geratu zaigu batak tokian tokiko koiuntura aztertzea beharrezkoa izango dela pobreziaren arazoari aurre egiteko, betiere eredu egonkor bat oinarri izanda.

Bestalde, mikrokreditua zenbait egoera konkretuetan tresna eraginkorra dela izan daitekeen arren, pertsonetikiko egokitzapen eza bide, kredituan oinarritutako finantza sistema batek hutsune handiak dituela ikusi dugu. Beharrezkoa da pertsona pobreei aurrezteko, aseguru bat kontratatzeko eta bestelako zerbitzu finantzarioak jasotzeko aukera ematea. Beharrezkoa da azken finean, mikrokredituetatik mikrofinantzarako pausua.

Mikrofinantzei dagokionez, pobreziari aurre egiteko mekanismo moduan aurkeztu ditugu eta hauek kausa honetan izan dezaketen eragina neurtzen saiatu gara lan osoko lerroetan zehar. Onurak eta eragin positiboak bilatu artean zenbait gabezia edo zirrikitu dituztela ikusi da. Administrazio eta transakzio kostu altuez gain, gabezia hauen oinarria kanpo-laguntzaren ezegonkortasunean dagoela uste dugu. Kanpo laguntzaren inguruko iruzur eta ezkutuko interesak ekiditeko bidean izate publikoen paper erregulatzailea azpimarratzen dugu eta hau indartzea beharrezkoa ikusten dugu. Muga honi aurre egiteko beraz, denboran zehar ekonomikoki jasangarriak diren entitate

mikrofinantzarioak behar ditugu, hau da, kanpo laguntzaren menpe ez dauden entitateak eta sistemaren autoelikadura bizirauteko oinarri dutenak.

Lanaren ondorio nagusi moduan, mikrofinantzek pobrezia murrizketan eragina dutela, eta eragin hau positiboa dela baieztatu dezakegu. Tesi hau lan osoan zehar garatutako teorien hautemateko aukera izan dugu, eta atal praktikoan, hau da Boliviar kasuan, ideia hau berresteko aukera izan dugu ere. Izan ere, Bolivian, mikrofinantzak inklusio sozial eta finantzarioan aurrera egiteko oinarrizko tresna izan dira; baita desparekotasuna eta pobrezia murrizteko tresna ere. Gainera, erreferentziazko erakundeek argi utzi duten moduan, Bolivian jazotako emaitza hauek beste garapen bideko herrialdeetan replikagarriak dira ere, betiere koiuntura sozio politiko eta tokian tokiko ezaugarriak kontuan hartuz. Hala ere, aurretik aipatu dugun moduan, kasu partikularrak eta behingo gertaerak alde batera utzi eta metodologia zientifikoan oinarritutako ikerketa teknika berriak garatzea beharrezkoa ikusten dut, pobrezia murrizketaren gaineko eragina neurgarriagoa eta ondorioztagarriagoa izan dadin.

### Lanaren mugak eta hobetzeko bideak

Aurreko atalean lanaren ondorioez aritu eta gero lan honek izan dituen mugak eta hauen ondorioz etorkizunean gure azterketa hobetzeko erantzun gabeko zenbait galdera aurkeztuko ditugu jarraian.

Lanaren baldintzak eta gaiaren sakonera eta konplexutasuna kontuan hartuta, muga eta hobetzeko bideak uzten ditu agerian idatzi dugun lanak. Atal praktikoan, adierazgarria iruditu daiteke teoriaren erreferentzia enpiriko bat bakarrik aztertu izana. Beste kasu praktiko bat aztertu izanez gero, beste kontinente bateko herrialde bat adibidez, lanaren atal praktiko osoagoa eta bien arteko konparaketak ondorio zabalagoentzako parada emango luke. Hala ere, lanaren baldintzak errespetatzearen eta Boliviaren kasua hain adierazgarria izanda, kasu praktiko bakarra aztertzea egokia iruditu zitzaigun.

Atal teorikoan ere hainbat muga ikusten dizkiogu idatzitakoari. Alde batetik, interesgarria litzateke mikrofinantzen eragina edo inpaktua neurtzeko jarraibideak zeintzuk diren teorikoki azaltzea, betiere errealitateko kasu bati erreferentzia eginez. Bestetik, mikrofinantzen hedaldiaren ondotik baina paraleloki indarra hartzen eta

sortzen ari diren erantzukizun sozialarekin lotutako mugimenduen oinarri eta jatorria aztertzea interesgarria litzateke ere. Izan ere, inklusioa oinarri duten banka etikoa edo enpresa soziala bezalako kontzeptu berriek, etorkizun hurbilean garrantzia handia hartuko dituztela uste dugu. Inklusio sozialaren ildoarekin jarraituz, mikrofinantzek ekonomia garatuetako herrialdeetan, finantza sistema egonkor eta modernoak dituzten herrialdeetan hain zuzen, hurrengo urteetan zer nolako papera hartuko duten pentsatzera eramaten gaitu.

Horregatik guztiagatik eta mikrofinantzen koiuntura ziurgabea kontuan hartuta, etorkizunerako atea zabalik utziko dugu, aukera izatekotan azterketarekin jarraitzeko.

### Ekarpena: Mikron pentsatu, mikron ekin.

“Pobreziak milioika aurpegi ditu. Pobrezia gosea da. Pobrezia babeslekurik ez izatea da. Pobrezia gaixo egotea eta medikuarenera ezin joatea da. Pobrezia hezkuntzarako eskuragarritasunik ez edukitzea eta irakurtzen ez jakitea da. Pobrezia lanik ez edukitzea eta etorkizunari beldurra izatea da. Pobrezia ur kutsatuak eragindako gaixotasun bat bide seme bat galtzea da. Pobrezia inpotentzia, ordezkari eza eta askatasun eza da”(Munduko bankua, 2007).

Inork ez du aukeratzen pobre jaiotzea, ezta zailtasun izugarriekin bizitzea, ezta aukerarik gabeko egutegi amaigabe batean bizitzea ere. Gutxi batzuk, munduaren funtzionatzeko era kontrolatzen duten horiek hain zuzen, bilatzen duten desparekotasuna, pobrezia sorrarazteaz gain, munduan gertatzen diren guda, drama eta gorroto askoren sorburua da. Hala ere, garapen bideko herrialde nagusien arazoetan erreparatzen badugu, elite eta gobernuekin zerikusirik ez duten edo independenteak diren porrot eta hobetzeko bideak ikusten ditugu. Ezjakintasuna, ideologia eta inertzia (gazteleraz hiru iak; ignorancia, ideologia e inercia, bezala ezagunak) dira garapen politiken oztopo moduan jokatzeko duten tresnak eta hezkuntzan eta kontzientziazioan lan egin beharra daukagu pobreziaren murrizketarako hasierako urratsak eman dezagun.

Hasierako ildoari jarraipena emanaz, desparekotasuna inoiz baino gehiago pairatzen ari garen gaitza da. Ulertezina da geroz eta gaitasun, baliabide eta metodo moderno eta eraginkorragoak izanda, erlatiboki gero eta pobreagoak izatea. Munduko bazter orotan,

inork bizitzeko babesik gabe egiten du lo gauero edo aita batek ezin du bere semea elikatu edo pertsona batek ezin dio gaixotasun bati aurre egin. Inoiz baino gehiago beharrezkoa da pobreziaaren aurka indarrak batzea ondorengo belaunaldiak sistema garatuago eta planeta hobeto batean bizi daitezzen.

Baina nola batu ditzakegu indarrak? Lan honetan behin baino gehiagotan inplizituki aipatu dugun moduan gauek egunera ez dugu desparekotasunarekin amaituko ezta, asko pentsatuta ere, pobreziaarekin amaituko duen edabe magikoarekin topo egingo. Indarrak batzea milioika eta milioika ekintza txikien metaketan datza. Auzoko behartsu horri ahal dugun heinean laguntzen, igandean herrian egiten den ekintza solidario horretan parte hartzen edo lan hau irakurri eta gero jateko ez duten milioika pertsona pobre horietan pentsatzen minutu batzuk xahutzen. Ezin dugu inolaz ere itzaropena galdu. Mundua guk osatzen dugulako, pobrezia aurre egin diezaiozun. Lehendabiziko urratsa gure esku dago, mikron pentsatuz eta mikron ekinez.

## BIBLIOGRAFIA

- ✚ ABBAD, M. (2010): *Microcréditos: préstamos a la dignidad*. Icaria, Barcelona.
- ✚ ARMENDÁRIZ, B eta LABIE, M. (2011): *The Handbook of microfinance (203-251; 643-661)*. World Scientific Publishing Company
- ✚ V.BANERJEE, A; DUFLO, E. (2015): *Repensar la pobreza: un giro en la lucha contra la desigualdad global*. Taurus, Madrid.
- ✚ BASS, H. *Ragnar Nurkse's Development Theory: Influences and Perceptions*
- ✚ BUCLEY, G eta CASALE, G. (2007): *Diálogo social y estrategias de lucha contra la pobreza*. Ministerio de trabajo y asuntos sociales
- ✚ CGAP (2009), Annual Report 2009, CGAP, Washington D.C.
- ✚ COLLINS, D., MORDUCH, J., RUTHERFORD, S. eta RUTHVEN, O. (2009): *Portfolios of the poor: how the world's poor live on \$2 a day*. Princeton University Press.
- ✚ CORDOBÉS, M eta IGLESIAS, M. *Informe sobre el impacto de los microcréditos*. Microbank, Madrid.
- ✚ FELDER-KUZU, N. (2010): *Micro-franquicios. Casos Practicos. Más allá de los microcréditos*. Ariel
- ✚ GARCÍA DEL POZO, P. (2006): *Algo más que historias: Inmigración y microcréditos*. Tabla Rasa, España.
- ✚ GRAMEEN BANK (2012). *Grameen Bank anual report 2012*
- ✚ GRAMEEN BANK (2014): *Grameen Bank Annual report 2014*
- ✚ GUTIERREZ, J. (2009): *Microfinanzas y desarrollo: Situación actual, debates y perspectivas*. Hegoa, Bilbao.
- ✚ KLUGMAN, J. (2010): *Informe sobre el desarrollo humano 2010. La verdadera riqueza de las naciones*
- ✚ LACALLE, M; RICO, S. (2007): *Evaluación del impacto de los programas de microcréditos: una introducción a la metodología científica*. Foro Namtik Lum de microfinanzas, Madrid.
- ✚ LACALLE, M. (2010): *Glosario básico sobre micrifinanzas*. Foro Namtik Lum de Microfinanzas, Madrid.
- ✚ MARCONI, R. (2014): *El milagro de inclusión financiera. La industria microfinanciera en Bolivia 1990-2013*. Fundación PIEB, La Paz.

- ✚ MICROCREDIT SUMMIT CAMPAING. (2007): Informe de la cumbre mundial del microcrédito 2007
- ✚ MOYO, D. (2009): *Dead Aid: Why Aid is Not Working and How There is a Better Way For Africa*. Allen Lane Publishers, London.
- ✚ PEREZ, A. (2014): El confidencial. *Microcreditos bajo sospecha*
- ✚ PEROSSA, M; WALDMAN, P; GIGLER, S eta NARDI , N. (2016): “*Del círculo vicioso al círculo virtuoso: Los microcréditos como instrumentos de inclusión social*”, Revista Observatorio de la Economía Latinoamericana
- ✚ ROODMAN, D. (2012): *Due Dilligence: An Impertinent Inquiry into Microfinance*. Center for global development, Washington.
- ✚ TORRE, B. (2012): *Guía sobre microcréditos*. Universidad de Cantabria, Santander
- ✚ SACHS,J. (2006): *The end of poverty*. The New York Times
- ✚ UNCETA, K eta GUTIERREZ, J. (2008): *Accesibilidad y profundidad del Sistema financiero: algunas implicaciones para los objetivos de desarrollo y las microfinanzas*. Hegoa, Bilbao.
- ✚ WORLD BANK (2007). *Informe sobre el desarrollo mundial. El desarrollo y la proxima generación*.
- ✚ WORDL BANK (2008): *Finance for All? Policies and pitfalls in expanding access*, World Bank, Washington D.C.
- ✚ YUNUS, M. (2007): *El banquero de los pobres: Los microcréditos y la batalla contra la pobreza en el mundo*. Sal Terra

## Webguneak

- ✚ Cumbre Mundial de Microcrédito: [www.microcreditsummit.org](http://www.microcreditsummit.org)
- ✚ CGAP (Consultative Group to Assist the Poor) [www.cgap.org](http://www.cgap.org)
- ✚ Biblioteca Microfinan Gateway: [www.microfinancegateway.org/p/site/m/](http://www.microfinancegateway.org/p/site/m/)
- ✚ Plataforma española de microfinanzas  
(PEM): <http://www.esmicrofinanzas.com/>
- ✚ Fundación Nantik Lum: [www.nantiklum.org/index.php?sec=1&ssec=4](http://www.nantiklum.org/index.php?sec=1&ssec=4)

- ✚ Mix Market: <http://www.themix.org/mixmarket>
- ✚ USAID (United States Agency for International Development) <https://www.usaid.gov/>
- ✚ World bank. <http://www.worldbank.org/>
- ✚ Grameen bank. <http://www.grameen.com/>
- ✚ United Nations. <http://www.un.org/>
- ✚ PNUD <http://www.undp.org/>

